



ZESTOAKO UDALA

AKTA

UDALA ERATZEKO ETA ALKATEA AUKERATZEKO OSOKO BILKURA

Udaletxeko Batzar Aretoan, 2019ko ekainaren 15eko eguerdiko hamabiak izanik, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikuluan ezarritakoa betez, eta Udala eratzeko bilkura burutzeko, jarraian adierazten diren zinegotziak lehen deialdian bildu dira, beren kredentzialak aurkeztu eta beren nortasuna egiaztatu ondoren:

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

1. M.A.U., Euskal Herria Bildu (EH Bildu) taldekoa.
2. N.O.L., Euskal Herria Bildu (EH Bildu) taldekoa.
3. R.A.U., Euskal Herria Bildu (EH Bildu) taldekoa.
4. M.B.Z.A., Euskal Herria Bildu (EH Bildu) taldekoa.
5. A.S.M., Euskal Herria Bildu (EH Bildu) taldekoa.
6. M.P.P.L., Euskal Herria Bildu (EH Bildu) taldekoa.
7. G.M.E., Euzko Alderdi Jeltzalea – Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV) taldekoa.
8. E.M.B., Euzko Alderdi Jeltzalea – Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV) taldekoa.
9. K.B.M.E., Euzko Alderdi Jeltzalea – Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV) taldekoa.
10. K.M.C., Euzko Alderdi Jeltzalea – Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV) taldekoa.
11. J.M.M., Euzko Alderdi Jeltzalea – Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV) taldekoa.

Idazkari lanetan, A.C.U.

Adineko Mahaia osatuta geratzen da, hurrenez hurren, adinez nagusiena eta gazteena diren K.B.M.I. eta K.M.C. zinegotzi hautatuek osatua, Udal-Idazkariarekin batera, Eskualdeko Hauteskunde Batzordetik jasotako ziurtapenetik ondorioztatzen denez. K.B.M.I. Mahaiburu da, adinez nagusiena baita.

Jarraian, bertaratutako zinegotziek karguaren jabetza hartzeko legezko tramite guztiak bete ondoren eta zinegotzien gehiengo osoa Osoko Bilkuran dagoela, Mahaia legez osatutzat deklaratzeko du Korporazio berria.

Ondoren, Alkatea hautatzeari ekiten zaio, horretarako aipaturiko ekainaren 19ko



ZESTOAKO UDALA

5/1985 Lege Organikoaren 196. artikuluan ezarritako araudiari jarraiki. Adin Mahaiak Alkatea aukeratzeko baldintzak gogorarazi ditu:

- Zinegotzi diren zerrenda buruak dira hautagai.
- Lehen bozketan. Zinegotzi guztien gehiengo osoa lortzen duena izango da Alkate.
- Horrela gertatzen ez bada, Udal Hauteskundeetan gehien bozkatutako zerrendako buru den zinegotzia izango da Alkate.

Ondoan zerrendatzen diren zinegotziak aldarrikatzen dira Alkatetzarako hautagai:

<u>Hautagaiaren izena</u>	<u>Talde politikoa</u>
G.M.E.	EAJ-PNV
M.A.U.	EH BILDU

Bertaratutako zinegotziek isilpeko bozketari ekiten diote eta, emandako botoen kontaketa burutu ondoren, honako emaitza hau lortzen da:

<u>Hautagaiaren izena</u>	<u>Lortutako botoak</u>
G.M.E.	Bost
M.A.U.	Sei

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan 196. artikuluan ezarritakoaren arabera, Udal-Hauteskundeetan gehien bozkatutako zerrendako burua den aldetik, M.A.U. aldarrikatzen da Alkate.

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa eguerdiko hamabiak eta hemeretzi minutu direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

O. e.
ALKATEAK,